

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU ERASOAK
JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBEA
EMATEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA
APLIKATZEKO NEURRIAK (2006)

Erakunde arteko Hitzarmenaren Bilakaera Zaintzeko Batzordea

Ondoren, Akordioan parte hartzen duten erakundeek 2006rako aurreikusita dituzten neurriak jaso dira. Neurrian helburua 2001eko urriaren 18an sinaturiko *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmena* ezagutaraztea eta aplikatzea da¹. Agiri hau Emakundek egin du Hitzarmenean parte hartzen duten gainerako erakundeek eskuratutako informazioaz, eta Bilakaera Zaintzeko Batzordeak onartu du 2006ko ekainaren 2an egindako batzarrean.

1. EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

- 1.1. Gaia dela-eta bidezkoa denean, lehendakariak, jendaurrean egiten dituen agerpenetan, berariaz aipatzea emakumeen aurkako indarkeria eta erakunde arteko Hitzarmena.
- 1.2. Etxeko tratu txarren biktima izan daitezkeen pertsonentzako materialak hainbat euskarritan lantzea eta ezagutzera ematea, hartara, tratu txarren biktimei nola jokatu eta nora jo argitzeko, eta hartu beharreko segurtasun-neurriak ezagutzera emateko.
- 1.3. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartzea.
- 1.4. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko prozesuan parte hartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean konpromiso politikoa, soziala eta pertsonala indartze aldera.
- 1.5. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz heriotzaren bat denean jarduteko protokoloa betetzea; eta, hortaz, Lehendakaritzako ordezkariaren bat joatea biktima bizi zen herriko Udalak antolatutako gaitzespen-ekitaldietara eta eraso gaitzesteko egingo diren gainerako jardueretara, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erakundeekin lankidetzan.

2. EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILA

- 2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziek etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz ezagutzen duten informazio estatistikoaren biltze- eta ustiatze-lana koordinatu, homogeneizatu eta sistematizatzeko araudia lantzen jarraitzea.

- 2.2. Etxeko indarkeriaren eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei buruz Ertzaintzak duen informazio estatistikoan delitua egin duenari buruzko estatistika-aldagaiak (hala nola, sexua, adina, herritartasuna...) ezartzeko lan egiten jarraitzea.
- 2.3. Etxeko tratu txarrekin eta sexu erasoekin zerikusia duten arau-hauste penalen biktimei buruz Ertzaintzak ezagutzen dituen datu estatistikoak Emakunderi igortzea, sei hilabetean behin (urtarrilean eta uztaillean) eta urtero (urtarrilean), aurreko aldiarekin alderatutako datuekin batera.
- 2.4. Neurri egokiak hartzea, etxeko tratu txarren ondoriozko larrialdi-egoerak direla-eta, 112 telefono-zenbakian jasotako deiak kuantifikatu ahal izateko
- 2.5. Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan antolatzen dituen sensibilizazio-ekintzetan parte hartzea.
- 2.6. EHUrekin batera egiten ari den lana bukatzea, galdetegi bat egiteko, bikote-harremanetan indarkeria larria jasateko arriskuari buruzko balorazioa egin ahal izateko.
- 2.7. Kalitateko Kudeaketa Sistema ezartzen hastea etxeko eta genero indarkeriaren tratamenduan.
- 2.8. Norbera babesteko neurriei buruzko informazio bideoa eta liburuxka argitaratzea, etxeko eta genero indarkeriaren biktima direnei zuzenduta.
- 2.9. Etxeko eta genero indarkeriaren biktimei etengabeko zaintza programa eskaintzen jarraitzea, behar badute.
- 2.10. Herrizaingo Sailak etxeko eta genero indarkeriari buruz hitzartutako erakunde arteko protokoloak aldi-an aldi-an aplikatzen eta ikuskatzen jarraitzea, batez ere, *“Koordinazio Protokoloa Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko Legea eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua eraginkorrek izan daitezten”*.
- 2.11. Ertzaintzaren Zuzendaritzaren Herritarren Segurtasun Atalean ari diren langile guztiak prestatzen jarraitzea, etxeko eta genero indarkeriaren tratamenduaren gaineko gaietan: soziologia, psikología, zuzenbidea, agiri polizialak, jarraibide operatiboak eta etxeko eta genero indarkeriari buruzko espedienteen gaineko tresna informatiko berria.
- 2.12. Fiskaltzarekin lan egiten jarraitzea, etxeko indarkeriako eta genero-indarkeriako kasuistikari buruz.
- 2.13. Ertzaintzaren “Harlax” aldizkari teknikoan emakumeen aurkako indarkeriaren gaia aztertzea edo emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari lotutako edukiak sartzea.
- 2.14. Genero-indarkeriak sortzen dituen arazoak, eta indarkeria-mota hori gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan nola dagoen eta zer bilakaera izan duen herritarrei

ezagutzera ematea, horretarako, Herrizaingo Sailaren Prentsa Zerbitzuak datu estatistikoek berri emango du.

- 2.15. Ertzaintzako kideen artean ere informazioa sustatzea, "Ertzaintza Gaur" izeneko argitalpenaren bidez, ertzainek gehiago jakin dezaten genero-indarkeriak sortzen dituen arazoek gainean.
- 2.16. Etxeko tratu txarren ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
- 2.17. Eguneratzeko eta hobetzeko ikastaroei dagokienez, etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak izaten direnean nola jokatu behar den erakusteko prestakuntza antolatzen jarraitzea, ertzaintzako –Segurtasun sailburuak eskatuta– eta udaltzaintzako –alkateek hala eskatuta–.
- 2.18. Gaiarekin lotura duten eskaletan, kategorietan eta espezializazioetan hasteko sarrera-ikastaroetan, etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasan dituzten emakumeei laguntzeko edukiak sartzen jarraitzea.

3. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

- 3.1. Ekintza zuzena adieraztea eta beharrezko tramiteak hastea, esperimentazio zentro bat sortzeari dagokionez, etxeko tratu txarren biktima diren eta premia bereziak dituzten emakumeei laguntza emateko.
- 3.2. Diru-laguntzak emateko orduan, lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza eta sostengua eskaintzen dizkieten proiektu sozialei.
- 3.3. Diru-laguntzak banatzeko garaian, lehentasuna ematea gizarte zerbitzuetako profesionalei arlo honetan prestakuntza emateko diren ikastaroei.
- 3.4. Emakume etorkinei zuzendutako "Zer egin etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak gertatzen direnean" liburuxka eguneratzea eta berriz banatzea, edo, berriro argitaratzea, hala badagokio.
- 3.5. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileei prestakuntza eskaintzea kulturantzasanari eta emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez.
- 3.6. Foru-aldundiek eta udalek etxebizitzak eskuratzeko eta etxeko tratu txarren biktimentzako abegi-etxe modura erabiltzeko duten aukera aurreikusten duten zenbait artikulua eta xedapenetan jasota dauden irizpideei eustea. Irizpideok ondokoetan daude jasota: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2004ko azaroaren 26an emandako Aginduaren hirugarren artikuluan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2002ko ekainaren 14an emandako Aginduaren bosgarren artikuluan, eta babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 11.3. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian.

- 3.7. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2004ko azaroaren 26an emandako Aginduaren bigarren artikuluan erabilitako irizpideari eustea; irizpide hori etxebizitzak genero indarkeriaren biktimentzat gordetzeari buruzkoa da.
- 3.8. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza gordetzeari dagokienek ekintza positiboko neurriei buruzko Aginduaren gaineko tramiteak burutzea eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onar dezan.
- 3.9. Erakundeen arteko lankidetzarako formulak antolatzea, etxeko tratu txarren biktimei behar dituzten egoitza-baliabideak bermatzeko.
- 3.10. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainetan parte hartzea Emakunderekin.
- 3.11. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
- 3.12. *Gizarte zerbitzuetako profesionalak etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurrean jarduteko gida* kofinantzatzea eta ezagutzera ematea.
- 3.13. Gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea.
- 3.14. *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko laguntza hobetzeko toki protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibideen gida* kofinantzatzea.

4. EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

- 4.1. *Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa eraginkorra izan dadin Jardueren Protokoloaren* bilakaera zaintzea lurralde historiko bakoitzean, hiru hilerik behin. Protokolo hori 2005ean sinatu zuten hurrengo erakunde hauek: Gobernu Salako ordezkari batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkariak, probintzia-azuzitegiak, epaile dekanoeak, Fiskaltzak, Emakundek, Herrizaingo Sailak, udaltzainek, profesionalen elkargoek, gizarte zerbitzuek eta berdintasunaren aldeko erakundeek, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak.
- 4.2. Prestakuntza ikastaro berezia antolatzea epaileentzako, Idazkaritza Judizialerako eta Fiskaltzarako adin txikikoen Legearen gainean. Ikastaro horretan sexu jazarpen eta erasoen arazoa aztertuko da beren beregi.
- 4.3. Lurralde historiko bakoitzean, Genero-indarkeriaren aurkako Lege Integralari buruzko ikastaro bat antolatzea, abokatuei zuzenduta.
- 4.4. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua koordinatzeko hiru zentroeak dauzkaten baliabide informatikoak hobetzea, hartara, aipatutako babesteko aginduok

- eta kautelazko edo segurtasun neurriak ezarriko dituen edozein ebazpen judicial hobeto kudeatu ahal izan ditzaten.
- 4.5. Erakunde judicialen aplikazio informatikoak hobetzea, gai horri buruzko estatistika errealitatearekin bat etor dadin, horren konfidentziasuna eta benetakotasuna bermatuz.
 - 4.6. justizia.net web orrian, genero eta etxeko indarkeriari buruzko eta sexu erasoei buruzko edukiak eguneratzea eta hobetzea.
 - 4.7. Emakumearen gaineko indarkeriari buruzko epaitegi berriak sortzen laguntzea.
 - 4.8. Gizarte zerbitzuekiko koordinazio neurriak areagotzea, biktimei laguntza hobea bermatu ahal izateko.
 - 4.9. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
 - 4.10. Telefono-zenbaki bakar bat martxan jartzea, Euskal Autonomia Erkidego osorako, etxeko indarkeriaren edota sexu erasoen biktimei abokatu laguntza berehala emateko: 902 103 908.
 - 4.11. Legekariaren Euskal Kontseiluarekin beste hitzarmen bat sustatzea, etxeko eta genero indarkeriaren edota sexu erasoen biktimei laguntza juridikoa emateari dagokionez, indarrean dagoen Hitzarmenean antzeman diren hutsuneak zuzentzeko, hitzarmen horretan jasotako jarduerak argitzeko, zerbitzu gehiago doan eskaintzeko, abokatuen ordainsariak hobetzeko eta sisteman behar den beste abokatu izateko, aholkularitza egokia eta berehalakoa bermatze aldera.
 - 4.12. Hitzarmen berria ebaluatzen jarraitzea, Bilakaera zaintzeko batzordean, etxeko eta genero indarkeriaren edota sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko zerbitzua eta ofizioko txanda sortzeko, hutsuneak zuzentze eta dagozkion hobetze neurriak sartze aldera. Hitzarmen hori Legekariaren Euskal Kontseiluarekin sinatuko da.
 - 4.13. Biktimei Laguntzeko Zerbitzuen (Babesteko Aginduaren Zentro Koordinatzaileak ere badiren aldetik) eta gainerako eragileen arteko koordinazioa areagotzea, Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzko legearen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna lortzeko Koordinazio Protokoloen alorrean.
 - 4.14. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuen funtzionamendu metodoak ebaluatzen jarraitzea, egon daitezkeen hutsuneak eta akatsak antzemateko eta hobetze jarduerak egiteko.
 - 4.15. Biktimari Laguntzeko Bulegoa jartzea Barakaldoko Justizia Jauregian, biktimen eta Barakaldoko Barruti Judizialeko Epaitegien eskura, Biktimari Laguntzeko Bizkaiko Zerbitzuak kudeatuta.

- 4.16. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuei buruzko dibulgazio material berria eta eguneratua banatzea.
- 4.17. Guardia zerbitzua martxan jartzea Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan, Babesteko Aginduaren Koordinazio Zentroetan, EAEko espetxeetatik asteburuetan kartzelatik ateratzeko baimena ematen den kasuetarako, EAEn eramandako prozedura judizialak direnean.
- 4.18. Inplikaturako erakundeen arteko lankidetzaren bultzatzea genero indarkeriari buruzko delituak egiteagatik kondenatuta dauden pertsonak tratatzeko baliabideak ezartzeko.

5. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA

- 5.1. Etxeko tratu txarren aurreko osasun protokoloa ezagutzera emateari eta sistematikoki ezartzeari buruz 2002. urtetik egin diren ebaluazioekin jarraitzea.
- 5.2. Tratu txarren aurrean osasun protokoloa sistematikoki eta zuzen betearaztea eta horri lehentasuna ematea Lehen Mailako Laguntzan eta Osakidetzako ospitaleetan (Lehen Mailako Laguntzan zein Osakidetzako akutuen ospitaletako Larrialdien zerbitzuetan jasotako jarduerak), edo ospitale pribatuetan.
- 5.3. Osasun Zentroeiei eta Ospitaleei zuzendutako materialak berriz argitaratzea, behar izanez gero.
- 5.4. Indarkeria eta lehen mailako laguntzari buruz argitaratutako materiala berrikustea eta Euskal Autonomia Erkidegoko egoerara egokitzea.
- 5.5. Erakunde arteko talde teknikoak hitzartutako eta Erakunde arteko Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordeak onartutako materiala banatzea osasun langileei eta pazienteei, hala badagokio.
- 5.6. Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren 2006ko Kanpainan parte hartzea.
- 5.7. Erakunde guztiek hartu beharreko neurrietan parte hartzea.

6. EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

- 6.1. Erakunde arteko Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egiten duten lana sustatzea eta koordinatzea.
- 6.2. *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena* eguneratzea; bertan, besteak beste, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jarduerak eta Bilakaera zaintzeko batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egindako lana jasotzen dira.
- 6.3. Aldiro-aldiri, Emakundek bere web orrian irekitako *Emakumeen aurkako Indarkeria* izeneko sekzioa eguneratzea eta osatzea, hartara, erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan garatu diren jarduerari eta Bilakaera zaintzeko batzordeak eta Erakunde arteko Talde Teknikoak egindako lanari buruzko informazio eguneratua eskaintzeko.
- 6.4. *Gizarte zerbitzuetako profesionalek emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu erasoan aurrean jarduteko gida* argitaratzeko finantzazioan parte hartzea.
- 6.5. Deustuko Unibertsitateak antolatutako *Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean esku hartzeko Masterrean* laguntzea, eskolak emanez eta ikasleei bekak eskainiz.
- 6.6. Hitzarmenari lotutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko aholkularitza teknikoa eskaintzea erakunde publikoei eta pribatuei.
- 6.7. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea.
- 6.8. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritza Bereziari jakitera ematea zein diren erakundeek Erakunde arteko Hitzarmenaren esparruan egindako jarduerak; horretarako, txostenak egingo dituzte eta koordinazio batzarretan parte hartuko dute.
- 6.9. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina koordinatu eta kanpainaren finantziazioan parte hartzea.
- 6.10. Etxeko tratu txarren ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa koordinatzea eta horren ezarpenean parte hartzea.
- 6.11. Emakunderen diru-laguntzei buruzko dekretuetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko, eta, orobat, indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko jarduerari lehentasuna emango dieten balorazio-irizpideak ezartzea.
- 6.12. Eudelekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenarekin jarraitzea; horren arabera, *Berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea* BERDINSAREA eratu da.
- 6.13. Gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea eta lana koordinatzea.

- 6.14. *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak* etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzeko jaso duen laguntza-programa erregulatuko duen araua prestatzeko lana bultzatzea eta koordinatzea.
- 6.15. Gorrentzako edo entzumen-urritasuna dutenentzako etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurrean jarduteko gida egiteko koordinazio lanekin jarraitzea.
- 6.16. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindako *Etxeko tratu txarren biktimentzako harrera baliabideak arautzen dituen Dekretuaren* zirriborroa osatzen laguntzea, proposamenak eginez.
- 6.17. Eudelek egindako *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko laguntza hobetzeko udal protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibideen gida* osatzen laguntzea, proposamenak eginez.
- 6.18. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaia jarduteko ardatz estrategiko gisa sartzea *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planean*.
- 6.19. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokian parte hartzea eta elkarlanean aritzea.
- 6.20. Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoan dauden baliabideen eta programen eraginkortasunaren eta irismenaren ebaluazioa egitea, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* 51.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorrita.

7. ARABAKO FORU ALDUNDIA

- 7.1. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurreko jarduna hobetzeko gidak, protokoloak edo materialak egiten eta ezagutarazten parte hartzea, horrela hitzartzen denean.
- 7.2. Hitzarmenaren inguruan bestelako erakundeek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroetan, jardunaldietan, hitzaldietan eta horrelakoetan) parte hartzea.
- 7.3. Azaroaren 25eko erakunde arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatu, finantzatu eta ezagutzera emateko lanetan parte hartzea, betiere, egin nahi diren jarduerak zein diren aurrez jakinez gero eta partaidetza ekonomikoa proportzioan hainbanatzen bada.
- 7.4. Emakumeen aurkako indarkeriaz sentsibilizatzeko jarduera bat egitea, batez ere, Arabako landa eremuetako biztanleei zuzenduta.
- 7.5. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
- 7.6. Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordearen eta beren beregi sortuko den Erakunde arteko Talde Teknikoaren koordinazio batzarretan parte hartzea.

- 7.7. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen gainean gizarte zerbitzuetako profesionali zuzendutako jarduteko gida ezagutzera emateko lanetan parte hartzea.
- 7.8. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera baliabideak arautzen dituen Dekretua egiten, garatzen eta administrazio honi dagozkion neurriak abiatzen laguntzea.
- 7.9. Gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea.
- 7.10. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko tokian tokiko laguntza hobetzeko udal protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibideen gida egiten eta ezagutarazten parte hartzea, Arabako landa eremuko errealitatea kontuan izanik.
- 7.11. Erakunde arteko koordinazioa areagotzeko Lurralde Mahaia sortzea eta Arabako Lurralde Historikoan protokoloaren bilakaera zaintzea.
- 7.12. *“Genero-indarkeriarako laguntza integrala, eta indarkeria horren prebentzioa eta desagerpena lortzeko egindako esperientzien bilduma eta informazioa”* izeneko txostena CD-ROM formatuan zabaltzea; lan hori Fundación Mujeres erakundeak egin du, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak aginduta, Gasteizko Udalarekin batera.
- 7.13. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Gasteizko Udalak onartutako Proiektuaren proposamena, hain zuzen, *“Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta indarkeria-mota horren biktimei laguntzeko zentro integrala sortzea”* ezagutzera ematea, babes gehien duen proiektua zein den jakiteko.
- 7.14. Beste lehiaketa bat deitzea, indarkeriaren biktima diren emakumeei eta gizon erasotzaileei laguntza psikologikoa emateko zerbitzu publikoen kudeaketa eta emakumeei eman beharreko orientazio juridikoa adjudikatzeko, zerbitzu horien koordinazio bateratua barne.
- 7.15. Aurrekontuaren gaineko beharrianak eta aukerak baloratzea, eta, hala badagokio, Gizon Erasotzaileei Laguntza Psikologikoa emateko Zerbitzua zabaltzea; horretarako, bikoiztu egingo da ordutegi berean dagoen terapeuta kopurua, gehitu egin delako, batetik, bide judizialetatik etorritako eskaera, eta, bestetik, indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabei eman beharreko laguntza, era berean, eurak ere biktima eta erasotzaile direla.
- 7.16. Genero indarkeriaren biktimei ematen zaien laguntzan zerbitzu espezializatuak eskaintzen jarraitzea: laguntza psikologikoa biktima diren emakumeei eta gizon erasotzaileei, orientazio juridikoa emakumeei, tratu txarren biktimekin zerikusia duten prozesu juridikoen bilakaera zaintzea, harrera etxebizitzak eta horietan edo euren etxebizitzetan bizi diren emakume biktimei zuzendutako Heziketa eta Laguntasun Programa, behar badute.

- 7.17. Gasteizko Udalarekin egindako lankidetzaren Hitzarmena luzatzea, hain zuzen ere, laguntza espezializatua ematen duten zerbitzuak garatzeko, bai eta laguntza, prebentzio eta genero indarkeria egoeretan esku-hartzeko koordinazioaren alorrean jarduerak egiteko.
- 7.18. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Arabako Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetzaren hitzarmena garatzea eta luzatzea, tratu txarren eta sexu erasoen biktime diren emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko.
- 7.19. Etxeko indarkeriaren biktimei babes aginduari dagokionez, jarduteko protokoloarekin bat etorrira, behar den koordinazioa garatzea, Arabako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuen arlotik.
- 7.20. 2006ko ekitaldian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erakunde-laguntzen deialdien bitartez, genero-indarkeriaren alorreko prestakuntza-, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak diruz laguntzea.
- 7.21. Gizarte zerbitzuetako eta elkarteetako profesionalei prestakuntza ematea gai espezifikotik, genero-indarkeriako egoeretan esku hartzeko.
- 7.22. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako gida banatzea; gida hori 2005ean argitaratu zen berriz, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren erabakita.
- 7.23. *Maskulinitasun berriak eta genero indarkeriari* buruzko esperientzia pilotu bat abiatzea, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, gai horren gainean gizonak monitore gisa trebatzeko.

8. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- 8.1. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzeko esparruan, eta erakunde arteko Hitzarmenari dagokionez, antolatutako jarduerak diseinatzen eta egiten laguntzea.
- 8.2. Genero Indarkeriaren Adierazleei buruz Lan Taldea egiten ari den lanari jarraitzea *Bizkaiko Genero indarkeriaren Behatokia*. Erakunde hori hainbat ordezkari osatzen dute eta Erakunde arteko Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordeak onartutako datuen bilketa fitxak ezagutarazteko bitartekoa da. Halaber, fitxa horietatik abiatuta, jasotako datuak zentralizatzen dabil, bai eta datuok gaur egun diseinatzen ari den datu-base batean sartzen, eta ustiatzen, indarkeriaren errealitatea Bizkaiko Lurralde Historikoan zein den jakin ahal izateko. Hartara, datuak denboran eta espazioan konparatu ahal dira, eta datu fidagarriak eta homologarriak lortzeko aukera ematen du.

- 8.3. Aldiro-aldiro Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuaren web orriko *Bizkaiko Genero indarkeriaren Behatokiaren* edukia eguneratzea eta osatzea.
- 8.4. Emakumezkoei zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Foru Dekretuko balorazio-irizpide bezala lehentasuna ematea abegia eta aholkularitza juridikoa zuzenean eskaintzeko diren jardueri.
- 8.5. Lehiaketa publiko bidez adjudikatutako Famili Topagune Zerbitzua indartzea; horretarako, bere egoitza den lokala handituko da 70 m²-tan (gaur egun 250 m² erabilgarri ditu) eta indarrean dagoen kontratua ere zabalduko da.
- 8.6. Gizarte zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartzea.
- 8.7. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindako *Etxeko tratu txarren biktimentzako harrera baliabideak arautzen dituen Dekretuaren* zirriborroaren edukia osatzen laguntzea, proposamenak eginez.
- 8.8. Gizarte zerbitzuetako profesionalei zuzenduta dagoen *Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurrean jarduteko gida* argitaratzeko finantzazioan parte hartzea.
- 8.9. Azaroaren 25eko erakunde arteko sentsibilizazio-kanpainaren finantzazioan parte hartzea.
- 8.10. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpenean parte hartzea.
- 8.11. *Etxeko tratu txarren biktimentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programaren* ezarpenean parte hartzea.
- 8.12. Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakumeek etxean jasaten duten indarkeriari buruz egindako inkesta argitaratzea eta ezagutaraztea.
- 8.13. EUDELEk egindako *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko laguntza hobetzeko udal protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibideen gidaren* edukia osatzen laguntzea, proposamenak eginez.
- 8.14. Emakumeen aurkako etxeko Indarkerian Espezializatutako Familietan Esku hartzeko Programa martxan jartzea; horren bidez, laguntza psikosoziala eskainiko zaie indarkeriaren biktima diren emakumeei eta erasotzailea bizi den etxeetan jarraitu edo horietara itzuli nahi dutenei, bai eta etxe horietan bizi diren adin txikikoei; programaren bitartez, pertsona horiek trebetasun eta baliabide batzuk bereganatu ahal izango dituzte, egoerak egoera behar den irtenbide egokia lortzeko.

9. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- 9.1. Lurralde-mailan berehalako harrera egiteko etxebizitza martxan jartzea 2006ko lehenengo seihilekoan; etxebizitza hori larrialdi egoeran dagoen edozein biktimarentzat egongo da eskuragarri eta langile espezializatuak izango dira hasierako laguntza eskaintzeko. Baliabide hori gainerako harrera baliabideak lortzeko zubia izango da.
- 9.2. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin parte hartzea, harrera baliabideen antolaketa eta funtzionamendu baldintzak eta irizpideak arautuko dituen araudi bat egiten.
- 9.3. Gizarteratze Zerbitzuan prestazio ekonomikoen partida bat mantentzea, etxeko indarkeriaren biktima izanik ezarrita dauden laguntzak lortzeko baldintzak betetzen ez dituzten emakumeentzat (Oinarrizko Errenta, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Integrala).
- 9.4. Laguntza ekonomikoak ezartzea harrera etxebizitzak mantentzea errazagoa izan dadin, *Harrera eta Etxebizitza Baliabideak Hobetzeko Programa (2004-2005)* betetzeko eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean ezarritako eskumen banaketaren alorrean.
- 9.5. Larrialdietako Foru Zerbitzua ezartzea.
- 9.6. Koordinazio batzarrak sustatzea, SOS-Deiak, Ertzaintza eta Udaltzaingoarekin, Larrialdietako Foru Zerbitzuaren koordinazioa hobetzeko.
- 9.7. Eskualde mailako batzarrak sustatzea Gipuzkoako udalerrri guztiekin, Larrialdietako Foru Zerbitzua egokitzeko.
- 9.8. Udalei laguntzea, informazioa ematea eta aholku ematea genero indarkeriari dagokionez.
- 9.9. Jarduteko protokoloak egiterakoan parte hartzea, erakunde arteko koordinazioa hobetzeko.
- 9.10. Kanpo zein barne Prestakuntza Plana garatzea. Lehenengoa, udaletako gizarte zerbitzuei zuzendutako prestakuntza jardunaldiak dira, jarduteko protokoloan lege aldaketek duten eraginari buruz; bigarrenean, beste prestakuntza jarduera batzuk aurreikusi dira, hain zuzen, berdintasun eta genero perspektibari buruzkoak.
- 9.11. Jardunaldiak antolatzea; jardunaldiok hileroko egingo dira azaroaren 25aren (tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen eguna) eta martxoaren 8aren artean, Giza Eskubideetarako Departamentuaren Enplegurako eta Gizarteratzeko Zuzendaritzaren Sentsibilizazio Kanpainaren barruan. Jardunaldi horietako agiriak eta materialak interesdunen eskura jarriko dira Gizarteratzerako eta Enplegurako Zuzendaritzaren web orriaren *Dokumentuak* atalean (www.egokilan.net).
- 9.12. Hitzarmenaren Bilakaera zaintzeko batzordean parte hartzea erkidego mailan, Erakunde arteko Talde Teknikoan eta dagozkion Azpi-batzordeetan.

- 9.13. Koordinazio batzarrak sistematizatzea, lurralde mailan, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin, Orientazio Juridikoko Zerbitzuarekin, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin.
- 9.14. Eudelek emakumeen indarkeriari dagokionez antolatutako batzarretan parte hartzea, lurralde mailan.
- 9.15. Emakundek sustatutako azaroaren 25eko erakunde arteko sentsibilizazio-kanpainaren finantziazioan eta zabalkundean parte hartzea.
- 9.16. Datuak biltzeko sistema bateratua sortzen parte hartzea, hartara, informazioa sistematizatu ahal izateko eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutu ahal izateko.
- 9.17. Indarkeria edo sexu erasoen ondoriozko heriotzetan protokoloa aplikatzen parte hartzea, betiere, biktimaren familiaren borondatea kontuan izanik.
- 9.18. Erakunde arteko Hitzarmena aplikatzeko egindako jarduerak ebaluatzea.
- 9.19. Tratu txarren eta sexu erasoen biktima izan diren emakumeei eta nahi duten erasotzaileei laguntza psikologikoa emateko programarekin jarraitzea.
- 9.20. Jarduteko protokoloak ezartzea, laguntza psikologikoko programara epai judizial bidez heltzen diren erasotzaileen kasuetarako.
- 9.21. Laguntza psikologikoko programa urtero ebaluatzea.
- 9.22. Gizaide Planean, berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteei zuzendutako dirulaguntzak indartzea, bai eta indarkeriaren aurkako prebentzio eta sentsibilizazio jarduerak eta etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei asistentzia eta laguntasuna eskaintzen dieten elkarteei zuzendutakoak.

10. EUDEL / EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

- 10.1. EUDELen web orriaren bidez, erakunde arteko Hitzarmen hau eta EUDELen ordezkariak duten partaidetzako organoek garatzen eta lantzen dituzten gainerako jarduerak eta protokoloak ezagutzera ematea.
- 10.2. Arlo honi lotuta dauden lege-xedapenen ondorioz adosten eta xedatzen diren ekintzak gauzatzeko zuzeneko ardura duten udal-langileen prestakuntzarako guneak proposatzen jarraitzea.
- 10.3. EUDELen eta HAEEEn artean sinatutako hitzarmenaren alorrean, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ematerakoan parte hartzen duten udal langileen prestakuntza-eskaintza osatzea, eta, horretarako, ikastaro bat antolatzea etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko toki protokoloei buruz.

- 10.4. *Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eman beharreko laguntza hobetzeko udal protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibideen gida egitea, argitaratzea eta zabaltzea.*
- 10.5. Udaletako teknikarien artean elkarri esperientzien berri emateko guneak antolatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko baliabide, zerbitzu eta prebentzio, detekzio eta esku hartzei buruzko esperientziak eta gogoetak elkartrukatzeko.
- 10.6. Araban eta Gipuzkoan berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal baliabideen mapa egiten parte hartzea.
- 10.7. Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal baliabideak ezagutaraztea Eudelen web orrian.
- 10.8. Arlo honetan aurkezten diren legegintzako ekimenak eta gainerako testu arau-emaeleak aztertzea, eta haiek hobetzeko ekarpenak eta oharrak egitea.
- 10.9. Gizarte zerbitzuen alorreko babes agindua aplikatzeko protokoloa ezagutaraztea EUDELEN web orriaren bitartez.
- 10.10. EUDELEN web orriaren bidez, *Etxeko tratu txarren biktimetzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa* ezagutzera ematea.
- 10.11. Datuak biltzeko sistema bateratua udal mailan aplikatzen parte hartzea; hartara, izan daitezkeen indarkeria kasuak hobeto koordinatzeko eta kasu bakoitza dagokion erakundera hobeto bideratzeko, eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko.
- 10.12. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurreko protokoloa ezagutaraztea Eudelen web orrian.
- 10.13. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen ondorioz izaten diren heriotzen aurreko protokoloa ezartzen parte hartzea.
- 10.14. Berdintasunaren aldeko eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako udalerrien sarea-BERDINSAREA sendotzea.
- 10.15. Erakunde arteko Hitzarmenean jasota dauden batzordeetan eta azpibatzerietan parte hartzea.

11. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN FISKALTZA

- 11.1. Arreta berezia eskaintzea biktimaren defentsari etxeko tratu txar eta sexu eraso delituetan; izan ere, larriak direnez, horiek sortzen dituzten kalteak ondare mailan sor daitezkeenak baino askoz larriagoak dira.
- 11.2. Zigor prozedura hasi baino lehen biktima Fiskaltzan aurkeztu bada, arlo horretan dauden erakundeei, eta, bereziki, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuari buruzko

informazioa emango zaio; bertan, doako orientazio juridikoa eta aholkularitza jasotzeko aukera izango du.

- 11.3. Zigor prozedura tramitatzen ari den artean, biktimari dituen eskubideen gaineko informazioa eman zaion ziurtatu beharko da; horrez gain, orientazio juridikoa eta aholkularitza jaso ahal izateko zein erakundetara edo zerbitzutara jo dezakeen ere jakinaraziko zaio (batez ere, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua). Gainera, nahiz eta lekuko gisa proposatuta ez egon, biktimari ahozko bista zein egunetan, ordutan eta lekutan egingo den eta epaia behar bezala jakinarazi zaizkiola ziurtatuko da.

Gasteizen, 2006ko ekainaren 2an